



Izenburua: **Zozabarrak**

Egilea: **Maixa Zugasti**

Bilduma: **Pertzebal, 50**

ISBN: **978-84-1093-024-7**

Salneurria: **11,50 €**

Itxuraz gertaera hutsala denak, ikasgela aldaketak jarriko du hankaz gora Juneren, liburu honetako pertsonaiaren mundua. Kideen jazarpena pairatuta, sufrimenduak gainezka eginda, neskatoaren bizitza osoa aldatuko da: ikastetxekoa eta etxekoa; gauak eta egunak.

Eskola jazarpena ikasle askok egunero-egunero sufritzen duten infernua da.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak 2023an argitaratutako ikerketa baten arabera, ikasgela bakoitzean, ia bi ikasle daude jazarpena bizi dutenak.

Euskal gobernuaren arabera, EAEan, 2022-23 ikasturtean, 218 kasu baieztatu ziren, aurreko urtean baino %39 gehiago. Datu ofizialak dira, salatu eta onartzen direnak. Biktimen herenak inori egoera aitortzen ez diola jakinda, uste dut kopurua askoz ere handiagoa dela.

Zenbakiak gorantza doaz, eta baita sufrimendua ere, ziber jazarpenak ohikoa biderkatu egin baitu. Puntueusek eta Cyberzaintzak, elkarlanean, ikus-entzunezko baliabide pedagogiko bat aurkeztu dute, erasotzaileengan begirada jartzen duena. Bideo batean, nerabe batek onartzen du ia guztiek eragin dutela noizbait jazarpen digitala.

Eta horregatik, June bezalako gazteek, egunero-egunero sufritu behar dituzte inguruko irribarreak, barreak, txantxak eta mehatxuak. Egunero, gorputzaren edo izaeraren inguruko isekak. Egunero, bultzadak eta jipoiak. Eta horregatik, egunero-egunero sentitzen dira bakarrik, triste eta beldurtuta. Egunero-egunero.

Egunero, ikastetxera iristean, inguruan eta gainean dituzte erasotzaileak babesten dituzten begirada konplizeak; baita isiltasuna eta ukazioa ere. Asko dira egunero-egunero baztertuak, ikusezin sentitzen direnak. Infernuan, erasotzailea babesten baita, eta biktima da errudun sentitzen dena. Eta horregatik, egunero sentitzen dira bakarrik, triste eta beldurtuta. Egunero-egunero.

Zozabarrak taldean bizi dira. Gu ere bai. Jhon Donnekin esana da: “Inor ez da uharte bat, berez, oso-oso denik; gizon oro kontinentearen zati bat da, osotasunaren zati”. Ederra da zozabarren dantza, baina baita hegazti bakartien hegaldia ere.

ANAR Fundazioak eta Mutua Madrileña fundazioak egindako VI. Ikerketaren arabera (“Ikasleen iritziak”), ikasleen %47-k onartzen du ez duela ezertxo ere egiten jazarpenaren aurrean. Nire bizipenak %90 baino gehiagora igoko luke kopuru hori. Gehiengoa.

Zozabarrek, taldeko hegaldian, inguruko zazpi kideei egiten diete jaramon. Gehiengoarentzat, hotz egiten du taldetik kanpo. Irakasle bezala lan egin nuen azken ikasturtean bizi izandako jazarpen kasu batean, Astigarragako gazte batek aurre egin zien erasotzaileei. Mutil on, gupidatsu eta askearen jarrera ausartak beste askorena zalantzan ipini zuen.

Duela urte batzuk, Uxuek Naroa Zubillagak itzulitako Horma liburua oparitu zidan. Badakit sarri itzuliko naizela Marlen Haushoferren basora. Hauxe irakur daiteke liburu harrigarri bezain eder horretan:

“Udazken honetan bele zuri bat agertu da. Beti doa besteak baino atzerago hegan, eta bakar-bakarrik pausatzen da bere adiskideek baztertzen duten zuhaitz batean. Ezin dut ulertu zergatik beste beleek ez duten maite. Niretzat txori bereziki ederra da; haren kidekoentzat, ordea, baztergarria da. Bakar-bakarrik ikusi ohi dut bere izeian pikotxean jarrita eta belardira begira-begira. Existitu behar ez lukeen ezgauza triste bat, bele zuri bat. Eserita geratu ohi da, aldra handiak hegan alde egiten duen arte, eta orduan jateko pixka bat ekartzen diot. Hain da otzana, harengana gerturatu ere egin naiteke. Batzuetan, lurrera ere jaisten da, banatorrela ikusten duenean. Ez dakit zergatik baztertu duten, eta ez du beste bizitzarik ezagutzen. Beti baztertuko dute, eta hain bakarrik sentituko da, beldur gutxiago izango die gizakiei anaia beltzei baino. Beharbada, hainbeste baztertzen dute, ezen ez dute akabatu ere egin nahi. Egunero, bele zuriaren zain egoten naiz, eta hura erakartzen saiatzen naiz, eta hark bere begi gorrixkekin begiesten nau arretatsu. Oso gutxi egin dezaket haren alde. Nire

hondakinek, beharbada, luzatu beharko ez litzatekeen bizitza bat luzatzen dute. Nik, ordea, bele zuria bizi dadin nahi dut, eta, batzuetan, basoan beste bat dagoela eta elkar ezagutzen dutela amesten dut. Ez dut aukera horretan sinesten, baina biziki desio dut”.

Azkenaldian, EBetako gobernuak jakinarazi du unibertsitatei diru laguntzak ukatuko dizkiela, baldin eta DEI agenda alde batera uzten ez badute. DEI ingelesezko siglak woke kulturaren aldarriak izendatzen ditu: aniztasuna, zuzentasuna eta inklusioa. Guztiok ezberdinak garela ahaztu dute, eta ezberdintasuna defendatzen duen gizartea zuzena eta aberatsa dela.

Maixa Zugasti
Donostia, 2025eko apirilak 7

Maixa Zugasti (Tolosan, 1973).

Irakaskuntzan aritu da hainbat urtez, eta gaur egun, idazle-lanean dihardu. Indarkeria matxistari buruzko LAA eleberriarekin, Irun Hiriko Literatura saria irabazi zuen, 2017an. Harrezkero, beste bi eleberri, ipuin bat eta poema-bilduma bat argitaratu ditu: Ahotsak eta itzalak (2018), Atarian (2022), Tximeletak hondartzan (2019), Hostoen hezurdura unatua (2021), hurrenez hurren.